


Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Gizona ilunpean

Paul Auster

ALBERDANIA

192 orrialde

18 euro

Paul Austerren azken nobela

2006an hasi zen Alberdania argialetxea Paul Auster idazle estatubatuarraren eleberriak beste hizkuntzekin batera euskaraz kaleratzen: *Brooklyngo erokeriak* izan zen lehena, *Bidaiak scriptoriumean zehar* etorri zen gero; eta orain *Gizona ilunpean* plazaratu du, Oskar Aranak egindako itzulpenari esker. Azken nobela honek insomnialdiak dituen 72 urteko gizon alarguna du narratzaile; lo faltari aurre egiteko, bere buruari istorioak kontatzeko ohitura du. 47 urteko alaba bananduarekin eta bilobarekin bizi da; azken hori Irakeko gerraren aurka

egon arren Iraken hil zuten mutil baten neska-laguna izan zen. Iraganeko eta gaur egungo gerrak dauzka beti gogoan protagonistak. |



Arreta soziosanitarioa

Batzuen artean

ARARTEKO

622 orrialde

Arreta soziosanitarioan izandako aurrerapausoak

Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausoak izeneko txostena Eusko Legebiltzarrean Euskadiko Atentzio Soziosanitarioaren Garapenerako Plan Estrategikoaz izandako eztabaidaren ondorioz argitaratu da. *Hurbilketa* gaztelaniaz eta euskaraz plazaratutako lana da. Osasun zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen lankidetzako eremua EAEn, beste autonomia erkidego eta herrialdetan, Europan eta Ipar Ameriketara aztertzen du; besteak beste, arreta soziosanitarioaren lehentasunezko xedea eta helburuak, antolamendu soziosanitarioaren konplexutasuna eta koordinazio soziosanitarioa errazten eta oztopatzen duten faktoreak azaltzen dira txostenean. |

Aitona hil dioten neskaren trantzea

Jordi Sierra i Fabrak idatzi eta Aitor Aranak euskaratutako *Eraztun Ospetsuaren arrastoa* gazteentzako nobelako protagonista antigoalekoen saltzaile baten biloba da. Goiz batez aitona bisitatzerara joan eta hark agindutako enkargu bat betetzen ari dela bi estualdi izango ditu: enkarguko paketea lapurtuko diote eta aitonari kontatzeko asmoz etxera itzultzean, hilda aurkituko du. Gizon bat bera hiltzen ere ahaleginduko da. Ez dira hor amaituko neskaren ezbeharrak. Poliziek, izugarri aberatsa den gizon batekin, CIAkoa dela esaten dion lagun batekin eta Irakeko Museo Nazionaleko kontserbatzailea dela dioten beste morroi batekin egingo du topo. Guztiek nahi dute haren laguntza, ustez aitona zuten altxor miragarri bat berreskuratzeko. |



Eraztun Ospetsuaren arrastoa

Jordi Sierra i Fabra

IBAIZABAL

190 orrialde

11,50 euro

Aurrizki, artizki eta atzizkiak gai

Euskal sufijazioaren eremu zabala jorratu du Jon Urruxulegik *Euskal sufijazioaren kutxa. Euskal aurrizki, artizki eta atzizkien adierazpena* lanean. Euskara hizkuntza aglutinante edo eranskaria izanik hitzaren erroari aurrean, barnean edo bukarran ezartzen zaizkion osagaiek duten garrantzia nabarmendu eta gero, aurrizkiei, artizkiei eta atzizkiei esker euskarak ahalmen endogeno nabarmena duela azaldu du neologismoak edo hitz berriak sortzeko, baita beste hizkuntzetatik maileguak jaso gabe behar berriei aurre egiteko ere. Oinarrizko lexiko gramatikalari –185 sarrera– eta deklinabideari eskainitako atalez gain, euskal jatorriko sufijazioa (740 osagai), sufijazio kultura (1.130 osagai), kimikako sufijazioa (48 osagai) eta jentilizioen sufijazioa (17 osagai) aztertu ditu Urruxulegik bere lanean. |




Euskal sufijazioaren kutxa

Jon Urruxulegi

TXERTOIA

192 orrialde

15 euro



The Basque Hotel. Nacido en América

Robert Laxalt

TARTTALO
200 orrialde
15,50 euro

Guraso euskaldunen seme Ameriketan

Robert Laxalt (1923-2001) hamazazpi libururen egile dugu eta Pulitzer sarirako bi aldiz izan zen hautagai. Baina ospetsu egin zuena bere guraso euskaldunen gainean idatzitako *Sweet promised land* lana da. Zuberetatik AEBetara artzain joan eta 47 urte geroago bere jaioterrira itzultzeko aukera izango zuen aita zen protagonista. *The Basque Hotel. Nacido en América* eleberrian berriz, bere buruaren sasi-biografia agertu zuen Laxalt, mutiko nerabe baten bidez. Guraso euskaldunak ditu, AEBetara etorkin joandako euskaldunek asko preziazten dituzten ostatu

moduko baten jabe. Amerikar petotzat du mutikoak bere burua, ez ordea bere zenbait ikaskidek. ■


Aita ausarta koldar gisa jokatzen ikusten duzunean

Eduardo izeneko ahate txikia bere aitarekin igerilekura doa goiz batez. Hori da Émile Jadoul-ek irakurtzen hasi berriak diren neska-mutikoentzat idatzi eta marraztu duen *Oilobustia* istorioaren abiapuntua. Igerilekura iritsi eta dutxatzen ari direla, Eduardok aitari primeran pasako dutela esan dio. Arrazoa? Arrisku-jauzia egingo du-te. Semearen burutazioak ez dio aitari inongo pozik eman, beldur baita oholetik buruz behera egiteko, Eduardok eta haren laguntxoek egiten duten bezala. ■

Oilobustia

Émile Jadoul

TARTTALO
28 orrialde / 11 euro



LEIRE BILBAO BARRUETABEÑA

«Markeli ama beti errietan ari zaio, gela txukuntzeko eskatuz»

Nolakoa da zure liburuko protagonista?

Abizen bat jarri diot, ez da hala? Gelazikin. Izan ere, mutiko horren logela hankaz gora dago beti, nahaspilatua, hautsak bazterrak janda... Eta ama beti errieta egiten ari zaio, gela txukuntzeko eskatuz, batez ere bere anaia txikiak hautsari alergía diolako.

Eta zer gertatzen zaio Markel Gelazikini?

Egun batez ama ohi baino gehiago haserretuko dela, eta esku batean erratza eta bestean hautsa kentzeko traputzarra eta lumaz betetako beste tramankulu bat jarriko dizkiola Markeli, esanaz ez ateratzeko gelatik dena txukun-txukun eduki arte. Eta hala ez bada, oilasko erre eta sagar tarta gozo barik geldituko dela.

Hortik aurrera komeriak, ez da hala?

Bai. Markel sartuko da bere logelan amak emandako trasteekin, eta jolasten hasiko da haiekin: lumadun tramankuluarekin jostailuei kili-kili egingo die; hurrena, eskuan trapua hartu eta ohe gainera igota lanpararantz saltoka hasiko da; ondoren, lurrean botatuko jostailuak erdipurdikoko punteriaz kaxa barruan sartzeari ekingo dio; eta azkenik, erratza hartu eta logelako izkina batetik bestera dantzaz ibiliko da, erratzaren ibilbide karratua laburtuz; gero eta karratu txikiagoak egin ahala, gela erdian batuko du hauts guztia; baina orduan haize zirimola bat sartuko da irekita zegoen leihoetik, eta hautsa harrotuko du. Bat-batean ezusteko lagun berezi baten bisita izango du Markelek. Hortxe utziko dut kontakizuna!



ANDONI CANELLADA / A.P.

Leire Bilbaok haurrentzat idatzitako azken lana

Leire Bilbao (Ondarroa, 1978) *Ezkatat* poema-liburuaren egile izateaz gainera,

haur literaturan emandako urratsengatik ere ezaguna da. Berarenak dira, adibidez, *Amonak nobioa du eta zer?* eta *Komunean galtzen naiz* bezalako kontakizunak. Eta ildo horri jarraipena eman dio *Markel Gelazikin* liburuarekin. Eider Eibarren marrazkiz horniturik, Elkar argitaletxearen Batela sailean sei urtetik gorakoentzat argitaratu da. Bere logelaren jaun eta jabe izan nahi duen mutikoa du kontalari: Markel. Logelan bakarrik egotea gustatzen zaio, eta argi utzi die etxekoei: hara ez da inor sartu behar haren baimenik gabe. Ez anaia txikia, ezta aita ere, gaetan musu emateko ez bada; amari ere debekatu dio sartzea. Berak agintzen duen lekua da, eta noski, arropa, jostailuak eta bestelako gauzak

egileari galdezka



Markel Gelazikin

Leire Bilbao, Eider Eibar

ELKAR

32 orrialde
6,10 euro

erortzen diren lekuan uzten ditu, zergatik ez? Etxekoek errespetatzen dute –nolabait– bere zoroan ibiltze hori, baina hautsak ez; hautsa barrura sartzen da baimenik eskatu gabe, eta han gelditzen da pilaturik norbaitek kendu ezean. Ondorioa? Amaren oihuak atearen beste aldetik: logela txukuntzeko, txerri-korta bat dirudiela. Hor hasiko dira Marke-len arazoak. ■